

itzulpena: Danele Sarriguarte

Andre Lorde





**Munduko
Poesia
Kaierak**

Audre Lorde

itzulpena: DANELE
SARRIUGARTE

 **Susasa** literatura

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© Audre Lorde

© itzulpenarena: Danele Sarriugarte

© edizio honena: Susa

2016ko martxo

Munduko Poesia Kaierak

bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola

<http://kaierak.com>

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Audre Lorde ez da izango XX. mendeko poeta estatubatuar ezagunena, baina Pascale Casanovaren erara esatearren, Munduko Letren Errepublikan haren poesia geroz eta gehiago aintzatzen ari da azken hamarkadotan. Hau da, bazterretatik kanonaren erdialderantz egin du ezarian, eta egun AEBetako poesiaren XX. mendeko antologia anitzetan topatu ahal izango ditugu haren poemak. Biraketa horren arrazoi gisa gorabehera politikoak aipatuko ditu akaso inork, modak beste batek, baina juzgu azkarrik egin aurretik jarraian dituzun poemak irakurtzea da onena. Luze gabe estimatuko duzu-eta haien indarra, haien zolitasuna, haien balioa.

Hain justu Lorderen lanaren ezaugarri horiek egin zuten batzuentzat hain eskandaluzko. Bolaluman bilorik gabe idatzi zuen Lordek emakume, lesbiana eta beltza izateagatik pairatutako azpiramenduari buruz, eta harrigarria suertatuko ez zaigun moduan, askorentzat onartezina izan zen hark idatzitakoan erradikaltasuna. Lorderen poesiaren soslai borrokalariaren adibide dugu *Orain* poema laburra, non irakurleari

sastakoan botatzen dion galdera: "*Eta zu / prest al zaude?*". Poesia kide bezainbat borrokakide izan zuen Maria-Merce Marçal-ek ere salatu zuen zapalkuntza hirukoitzaren kontrako poesia egin zuen hark ere. Ez alferrik, Lorde feminismo beltzaren erreferente nagusienetakoa izan baitzen, Alice Walker, Angela Davis eta enparauekin batera, haren poesiagatik ez ezik haren saiakera lanengatik, eta hala, interseksionalitatearen teoriko garrantzitsuenetakotzat jotzen da egun. Borroka ezberdinak elkarrekin bizi eta pentsatzen zituen Lordek, eta halaxe agertzen dira halaber bere poesian: "*kausak ikusten ditut kolorean / baina baita sexuan ere*". Auzia ironiaz eta umore zorrotzez lantzeko gai zela ere erakutsi zuen sarri: "*eta hemen eserita hausnarrean nabil / nire buruetako zeinek biziraungo duen / askapen hauen guztien ondorenean*". Marçalen *Dibisa* poema halaber ironikoari erantzuten dio-la pentsa genezake, baldin eta geroagokoa dela jakingo ez bagenu.

Lorderen poesiaren irudi ohikoa sumindua-rena eta borrokalariarena bada ere, begirada xeheago batek topikoa ñabartzera garamatza.

Arestian aipatutako ironia ez ezik, nabarmen-tzekoak dira batez ere hastapeneko poema aski lirikoak (antologia irekitzen duen *Leun bazatoz* esate baterako), goi zeruetako poeta batek baino gehiagok sinatzea gustatuko litzaizkiokeen horietakoak.

New Yorkeen, Harlem auzoan, jaio zen 1934an Mendebaldeko Indietako migrante familia bate-ra. Gazterik hasi bazen ere poesia irakurtzen eta idazten, nahiko berandu arte ez zen ezagun egin. Zegoen lekuan zegoela bere burua deseroso aurkitzen zuela aipatu izan du inoiz: zuri artean beltza zelako, gizon beltzen artean emakumea eta lesbiana zelako... Izanak izan, haren aurreko belaunaldiko Harlemgo poeta handiak, Langston Hughes-ek alegia, abegi onez hartu zuen, eta berak apailatutako *New Negro Poetry (Poesia negro berria)* antologian sartu. Hortik aurrera hasi zen, besteak beste, bere kabuz ere argitaratzen eta, ezarian, poesia zaleen artean estimatua izaten, tartean *Coal (Ikatza)* eta *The Black Unicorn (Unikornio beltza)* liburuei esker.

Poesiatik landa idatzi zituen obren arten *The Cancer Journals (Minbiziaren egunkariak)* aipa-

tu beharra dugu, Lordek pairatutako bularreko minbiziaren gorabeherak kontatzen dituen egunkaria. Lehenean eritasuna gainditu bazuen ere, sei urte geroago berriro agertu zitzaion, ordukoan gibelean, eta haren ondorioz zendu zen 1992an. Ataka hartan, buruan izango zuen akaso inoiz idatzi zuen lerro hura, bere kemena ondo adierazten duena: *“ez gintuzten bizirauteko sortu”*.

BEÑAT SARASOLA

[leun bazatoz]

Leun bazatoz
haizea nola zuhaitzen artean
adi dezakezu nik aditzen dudana
ikusitako oinazeak dakusana.

Arin bazatoz
ihintz-hariak nola
pozarren hartuko zaitut
eta zugandik deus ez eskatu.

Nire ondoan eseriko zara
arnasa bezain isilik.
Hilda darraitenek baizik
ez dute oroitzen heriotza.

Eta baldin bazatoz, ez dut hitz egingo
ezta ere hitz gogorrik esango
ez dizut galdetuko zergatik orain
ezta ere nola zabilzan, edo zertan.

Hementxe eseriko gara, leun

bi urte ezberdinen pean
eta gu bion arteko lur aberatsak
edango dizkigu malkoak.

[apopilo-etxeak emakume zaharrak dira]

Apopilo-etxeak emakume zaharrak dira
leiho ilunak kulunkatuz “noiz”en erritmoan
amaitu gabeko biribilen zain
kulunkan
bulego alokatuak eta sarrera-harmailak
eta komun konpartituak eta gas-sukaldeak eta
ohe azpian kaxak, noizbait erabilgarri izandako
zaramaz beteta
txekek bi hilean behin
eta alboko gizon gazteei
beren gauerdiko festa ozen
eta bainuan utzitako eraztun kirasdunekin
ez diete dagoeneko grinarik pizten
gauerditik eguerdira, etenaldirik ez
argia igarotzeko borrokan, trastez betetako
leihoetan barrena
eta zeinekin ezkondu zen bada Buzzieren
semearekin endredatu zen beste
alargun hura?

Gizarte Laguntzara txangoa eta irainak
nahasmen geldoaren ondorioz
eguneroko lanetik erosketa-poltsetara
janari kondarrekin astun.

Pentsioak
emakume zaharrak dira, zain
ilunabarreko leihoetan
bila
agoniaren hasiera edo bukaera noiz iritsiko
emakume zaharrak ate erdi irekietatik ikusita
esperantzan
ez daudela zain
ezpada badirela
norabaiteko sarrera
norabait ezezagun eta desiratua
baina ez berria.

Lehen liburuaren ostekoa

Papera ez da atsegina ezta krudela ere
zuria baino ez, neutraletan neutral
eta errealitatea, orain,
neure beso-puska marroi hau da
erritmo hautsietan dantzan
toki hil honetan zehar.

Idatzi ditudan poema guztiak
xurgatutako herrialde baten errepaso
historikoa dira
epaiketa txiki bat
ehizatu ditut, eta eztulka bota,
kanporatu ditut, hein batean, umeen antzera.
Orain garbi daukat eztarria
akaso berriz mintzatuko naiz.

Idatzi ditudan poema guztiek
liburu txiki bat osatzen dute
nire iraganaren azal hilak, harrokeriazko
adabakitan
mudaturik suge-larrua nola, aldegiteen liburu

bat

orain

nahi dudana egin dezaket.

Maita ditzaket, edo gorrotatu,
eroso edo epel sentitzeko baliatu,
oihal gisa edo dekoratzeko,
panpina modura edo saski japoniarrak josteko,
alfonbra edo sorginkeriatarako;
erabil ditzaket magia egiteko,
edo sortzeko argiontziak edo musika,
aholkuak edo batzorde txiki bat,
mukizapiak edo denbora-pasak edo
erabili eta botatzeko pixoihalak.
Su bilaka ditzaket
edo sutarako egur
kantu, edo paper-kate.

Edo den-denak tolestu eta paperezko
haizagailu bihur ditzaket
nire senarraren afaria freskatzeko.

Ekinean

Nire gorputza, arku bat, zure leku zurien
gainetik
kolorea eta sustantzia nahasiz
zure hotza estali nahian
aurpegiak konpartitzen ditugu
baina maitasuna gezur bihurtzen da
maskara zatituen pean sufritzen dugularik
norberaren beste erdia amets.

Kateatuta gaude
besteari emanaz
guk geuk
jaso nahi genukeena.

Fantasia eta elkarrizketa

Orbandun apoak nire ahotik jautsian
kafean itotzen dira
gure jakinduria
eta erabakien artean.

Irribarre egin nezake
eta apo hauek harribitxi bihurtu
amodioaz mintzatu, egiten dugunaz,
ematen dugunaz.

Eta aztikeria eraginkorra bada
apurtu behar ote nintzateke
ala hautsitakoa berreraiki
etxe berri bat
nahasmenak astindurik.

Ekin behar ote nuke
gure magia
kolore bihurtu aurretik?

Zuetako bakoitzari

Izan zaitez zarena eta izango zarena
ikasi maitatzen
gidatzen zaituen Aingeru Beltz zaratatsua,
egun batean gorantz, hurrengoan beherantz
zure boterearen iturburua babestuz
odol beroa bezala jariatzen da
zeure mina ernatzen den
toki beretik.

Gose zarenean
ikasi jaten
hurrengo goizera arte
sostengatuko zaituen hori
baina ez endredatu xehetasunekin
bizi dituzulako soilik.

Ez utzi zure buruari
zure eskuak ezeztatzen
ezta zure begiak
ezta zure bihotza
ezta horietan barrena pasatu den edozer

gauzaren oroitzapena ere
oro erabil daiteke
salbu eta zaborretarako dena
(hori oroitu behar duzu
suntsitzaile izatea leporatzen dizutenean).
Arriskutsuak badira ere, aztertu gorroto
dituzun makina horien
bihotza
bazter utzi aurretik
eta sekula ez deitoratu haien botererik eza
ea azkenean
berauek askatzera zigortuko zaituzten.
Ez baduzu gorrotatzen ikasten,
ez zara sekula nahikoa bakarrik egongo
aise
maitatzeko
ezta ere, beti ausarta izango;
baina hori, bestela ere, ez da sekula erraza.
Ez itxuratu sinesmen komenigarriak
zuzenak izan arren
ezin izango duzu zure hiria defendatu
garrasika ari zarelarik.

Gogoan izan ametsetatik datorkizun

oinaze oro
baina ez bilatu jainko berririk
itsasoan
ezta ostadarrean ere.
Maitatzen duzunero
maitatu sakon
betiko balitz bezala
deus ez den arren
eternala.

Harro mintzatu zure hurrei,
topatzen dituzun toki orotan
esan:
esklaboen ondorengoa zara
eta zure ama
printzesa bat
iluntasunean.

Ispilu onak ez dira merke saltzen

Alferrikako lana da ispilu bat gorrotatzea
edo isla bera
ez, ordea, beira distortsionatua sortzen duen
eskua geldiaraztea.

Distortsio txikiak, nahikoa arinak
ikusezin izateko adina
harik eta egun batean
zeure aurpegiari so egin
eta zuri gupidagabearen argitan
ispiluaren akatsak kolpatu arte
zuk zeure oker propiotzat joko duzun
tankera hartuz.

Zure ondoan banago
suntsituko nauzu
baina ikusten baduzu
ispilua gezurretan ari dela
kristala txikituko duzu
bestelako itsutasun bat aukeratu
eta esku zartatu babesgabea.

Izan ere, aldi berean,
kalean behera
irribarrez ariko da ispilugilea
ispilu gezurtiak sortuz
pailazo berriak
salduz
prezio murriztuan.

Belaunaldia II

Neskato beltz bat
bakarrik doa
bere amak
desio zuen
eta errezotan eskatu zuen
emakumea
bilakatzeko bidean
eta beldur da
beraien bien
amorruaren izu.

Maitasuna, akaso

Beti

gure guda odoltsuenen muinean

besoak jaisten dituzu

mina loretsuen tankeran

ni etxera konkistatzeko, atzera.

Mugimendu kantua

Zure lepatzeko kizkur estuak aztertu ditut
nigandik urruntzen direlarik
amorrurik edo porrotik gabe
zure aurpegia, nostalgia ikasteko iluntzeko
eskolan
desioz ondutako goizetan barrena
beti ari ginen agur esaten
odolean, hezurrian, kafea hartzean
laster batean alde egin arte
norabide ezberdinetan ginderamatzen
igogailuetan
agurrik gabe.

Ez nazazu oroitu zubi edo teilatu gisa
kondairen egile
edo tranpa gisa
ate gisa, mundu horretarantz
zeinean bulegari zuri eta beltzak
edertasunaren ertzean zintzilik baitaude,
bostetan, igogailuetan
sorbaldak bihurritzen bestearen haragia

saihesteko

eta orain

norbaitek hitz egingo du haien izenean
nigandik urrun doa biharra helmuga
desioz ondutako goiz
zure agurra tximista-promesa bat da
azken aingeruaren eskuan
ongierririk ez, ohartarazpena bai
hareek gure aurka egin dute alde
ordainsaria jaso genuen gure bidaien truk
bata bestearengandik urrutiratzeko bidaiak
desiorantzkoak
bakardade-goizetarakoak
non aitzakia eta erresistentzia elkartzen baitira
eta erabakia sortzen.

Ez nazazu oroitu

hondamendi gisa

ezta sekretuen jagole modura ere

bidaide bat nauzu, animalien atoian

so

nola egiten duzun alde, poliki, nire ohetik

esanez ezin dugula guk bakarrik

denbora xahutu.

Zeinek esan zuen erraza izango zela

Sustrai ugariak ditu amorruren zuhaitzak
eta batzuetan adarrak hausten dira
fruituak eman aurretik ere.

Nedicks-en eserita
andreak ziztuan doaz, manifestatu aurretik
beren burua askatzeko kontratatzen dituzten
neskato gatazkatsuak hizpide.

Ia zuria den gizon bat igaroan,
neba bat zain, emakumeak zerbitzatzeko
lehenik

eta andreak, jabetu gabe, ez diote uko egin
beren esklabotzaren plazer arinagoei.

Baina nik neuk, ispiluak lotua,
eta baita oheak ere,
kausak ikusten ditut kolorean
baina baita sexuan ere.

Eta hemen eserita hausnarrean nabil
nire buruetako zeinek biziraungo duen
askapen hauen guztien ondorenean.

Urte bat bizitza, Grand Central geltokian

Baldin eta gorroto baditugu metroko ordu
goriak
guk geuk, egunero metroa hartzen dugunok
zergatik ez da oraindik gertatu New York
Hiriko Metroko Matxinadarik
puntako orduko iraultza odoltsurik
non marmar batek
aurrera egingo baitu bultzada artean
eta ez baita etengo nasaren ertzean.
Tren automatizatuen negarrak
itoko ditu gure garrasiak
gure testamentu odoltsu eta askatzailea
aldaketaren aldeko azken aukera edo
esperantza.

Itzaropena, ordea, kontrairaultzailea da.
Presioa irakiten ari da
baina ez dugu eztanda egin
aitzitik, barrura eta kanpora jariatzen gara
egunero

erdizka digeritutako masa baten gisan
azken taket batek paldoztatzen baititu gure
ametsak

eta bidaietako amorrua aldiro baretuz
hortxe daukagu itxaropen lañoa
egunen batean, hurrengo geltokian
ateren bat irekiko zaigula
aire freskora, argira, etxera.

Konturatzen baldin bagara
zenbat xahutzen ditugun gure buruak
ordu gorietako metrotan
lur azpian
zinezko irteerarik gabe
ez zaigu hain garrantzitsua irudituko
zer moneta ordaintzen dugun
aldaketaren truk.

Orain

Andre boterea
da
beltz boterea
da
giza boterea
da beti sentitzea
nire bihotza taupaka
nire begiak irekita
nire eskuak ekinean
nire ahoa hizketan

ni banago.

Eta zu
prest al zaude?

Banaketa

Izarrak ahul daude
eta ez naute sarituko
gailentzen naizenean ere.

Posible da
gizon bat tirokatzea
norbere burua defenditzeko,
eta hala ere nabaritzea
bere odol gorria
elurra dekoratzen.

Gizartea aldatzeko modu bat da iraultza

Gizona lanpetuta badabil
beltzak sortzen
ez du gehiegi
axola
zer tonutakoa zaren.

Kolore jakin bat
agortzen bazaio
beti alda dezake
tamaina,
eta handiak
bukatzen bazaizkio,
beti alda dezake
sexua
azken batean
horrexekin
hasi baitzen dena.

Mehatxu marroia, edo
labezomorroen
biziraupenari buruzko poema

Dei nazazu
biziraupenerako
zure grina biziena,
dei nazazu,
eta nire neba eta ahizpa ere,
zure errefusaren usain zorrotzean,
dei nazazu
labezomorro handinahi,
zure burusi zurian amesgaizto,
zure baitako
alderdi suntsiezina
suntsitzeko irrika.

Dei nazazu
zure deliberoa
denik eta tankerarik gorrotagarrienean
bihur zaitezke
zure irudiaren adiskide
nire barruan.

Zu naiz
minen desiratu duzun amesgaiztoan
ibilian nabil
margotu dituzuen arrakaletan barrena
sar nadin
zuen sukaldeetan,
zuen gauerdi izutueta
zuen balioetan, eguerdian,
zuen toki sekretuenetan
gorrotoz.

Ni ohoratzen ikasi duzue
imitazioz
antzaldatzen bainaiz—
zuen kezka diru-goseak gorabehera,
zuen sukalde-guden
eta errefus pozoitsuaren gainetik—
bizirauteko.

Bizirauteko.

Biziraun.

Sakrifizioa

Baimentzen dizkiguten goseak
baizik ez zaizkigu geratzen
gure farola sakratuen argitan
jarraitzea promestu dugun dena delako
maparen arabera
plazerak traizio egingo digu
egin beharrekoa egin ezean
nahiz eta
ez dugun egin nahi
ikusitako harri etsaia bidea egiten, erretiroan
plazer edo pozik gabe
beste aldera begiratzen dugu
gure ametsak egia bihurtzen direlarik
gure esku odoltsuek historia zeharkatzen
dutelarik

idatziz

etorri gara

egin dugu

egitera etorri ginena.

Harrizko estatuak beren aldareetatik beheratuz
berdindu behar ditugu

sostengatzen zituzten espektatibak
gure zain daude
beren irudia bete dezagun
zain
gure oinek har dezaten beraien tokia.
Ez badiogu uko egiten
marmolezko etxeetan lo egiteari,
gau bakar batez bada ere,
gure hurren plazer faltsua ikusteak
desegingo gaitu
gure hurrak hazi baitziren
marmolaren forma zeukan
itzalaren pean,
oztopo, beren begiek eguzkia ikusteko
guk ez dugu nahi
marmolezko estatua izan
gure hurren begien
eta eguzkiaren arteko bidean.
Erabil dezakegun
oro ikasiz
eta bakarrik funtsezkoa dena.
Merezi duen sakrifizio bakarra
desirarena da.

Ikatza

Ni

naiz erabateko belztasuna, hitz egina
lurraren barrunbeetatik.

Hainbat modutan egon zaitezke irekirik
nola bilakatzen den diamante bat sugar-
korapilo

nola bilakatzen den soinua hitz, kolorezko
nork zer ordaintzen duen arabera, mintzatzeko.

Hitz batzuk irekirik daude diamanteak bezala
kristalezko leihoetan
kanporantz kantuan, eguzkiaren kolpe
igarokorreen.

Gero, badaude beste hitz batzuk, grapatutako
apustuak bezala
zulotxodun liburu batean —erosi eta sinatu eta
orria erauzi—
eta datorrena datorrela, aukerak aukera,
taloiak hor dirau
gaizki ateratako hortz, ertza zartaturik.

Hitz batzuk nire eztarrian bizi dira
sugegorrien moduan ugaltzen. Bestetziek
eguzkia ezagutzen dute
ijitoen moduan dabilta xerka nire mihi
ganean
ezpainen artean eztanda egiteko
txolarre gazteen gisan, arrautza-oskola
leherraraziz.

Hitz batzuek
oinazea dakarkidate.

Maitasuna hitz bat da, irekirik egoteko beste
modu bat.

Diamantea sugar-korapilo bihurtu ahala
beltza naiz lurraren barrunbeetatik natorrelako
orain aitortu nire hitza harribitxia dela, argi
betean.

Belaunaldia

Gazteak nola saiatzen diren, eta gero hausten
dituzten

aldatu egiten da garaiz garai.

Neskato marroi askeak ginen
amodioa kantuan gure azalen pean
eguzkia gure ilean gure begietan
eguzkia gure zori
eta haizeak urrezko egin gintuen
egin gintuen alai.

Botere mugatuko sasoi batean
gure promesengatik egin genuen negar
eta haur hauek hartzen ditugu orain
gure aurpegia daramaten tentazio gisa.
Baina zein itzuliko da gure zurikeria-hiri
kisketaz itxietatik

haurrei ohartarazteko inora ez doan bidea
labain dagoela, guk isuritako odolez blai
haurrei ohartarazteko
ez dutela ibaia edan behar etxera bueltatzeko
zubiak erosi baititugu

gure amen urrearekin;
—orain sendia baino gehiago baikara:
konpartitzen ditugu,
odola ez ezik,
baita geure porrot odoltsuak ere—.

Gazteak nola tentatzen dituzten, eta
traizionatzen
sarraskirantz edo konformismorantz
ispilu-mugimendu bat da,
denbora-kontua, ez besterik.

Itzulipurdia

Ikusi nituen
zure eskuak nire ezpainetan orratzak nola
kamuts
harriak jostearen ondorioz
eta

nongoa zara

esan

zenidan;

zure eskuek ezpainak irakurtzen zizkidaten
errepide bila, gau zalantzazkoan
etxe bila, zure oinak

nongoa zara

esan

zenidan;

zure eskuak
nire ezpainetan trumoiak nola
promestuz euria;

maitaleak mutu diren lurralde bat

eta

zergatik ari zara negarrez

esan zenidan;

zure eskuak nire atarian ostadarrak nola
euriaren atzetik
zergatik ari zara negarrez?

Etxera iritsi naiz.

Haur batek gidatuko gaitu

Haur bat daukat
zeinaren oinak itsuak baitira
bide orotan
salbu eta isiltasunean.

Nire mutikoak
ezpain maitagarri eta tuntunak ditu
baina ezin du topatu
eguzkira daraman bidea.

Eta ni hazi egin naiz,
jakintzatik harago.

Adarbakar beltza

Adarbakar beltza gutziatsua da.
Adarbakar beltza zazpikia da.
Adarbakar beltza nahasten dute
itzal batekin
edo ikur batekin
eta eramaten dute
herrialde hotz batean barrena
non lanbroak iseka egiten baitzuen
nire amorruren bizkar.
Adarra ez dauka altzoan,
baizik eta ilargi-zuloan, sakon,
eta handiagotzen.

Adarbakar beltza geldigaitza da
Adarbakar beltza gupidagabea da
Adarbakar beltza ez da
aske.

Emakume bat mintzo

Ilargiak markatua eta eguzkiak ukitua
nire magia ez dago idatzirik
baina itsasoak atzera egitean
nire forma geratuko da iltzaturik.
Ez dut mesederik nahi
odolez bustia ez bada
ez bada iraunkorra amodioaren madarikazioa
bezala
betirakoa, nire akatsak
edo nire harrotasuna bezala
ez ditut nahasten
maitasuna eta gupida
ezta ere gorrotoa eta mespretxua
eta ezagutu nahi banauzu
mia itzazu Uranoren erraiak
non ozeano geldigaitzek egiten baitute taupa.

Ez dut ostatu hartu
ez nire jaiotzan ez nire dibinitateetan
adinik ez daukat, erdizka hazi naiz
eta oraindik bila nabil

nire ahizpen xerka
Dahomeyko sorginak
jantzi nazaten beren arropa biribilduetan
geure amak egin bezala
doluz.

Emakume izan naiz
denbora luzez
kontuz nire irribarrearekin
tranpatia naiz, magia zaharrez beterik
eta eguerdiaren amorru berriarekin
zin egindako
zuen etorkizun beteekin
emakume
naiz
eta ez zuria.

Dan tribuko emakumeek
ezpatak eskuan
egiten dute dantza,
gudariak zireneko sasoiak
markatzeko

Ni ez nintzen zerutik erori
ni
ezta ere jaitsi oti-izurrite bat bezala
lurretik kolorea eta indarra edateko
eta ez nator euria bezala
gorazarre edo ikur gisa, lurraren mesedegarri.
Emakume nator
ilun eta ireki
batzuetan gaua bezala abailtzen naiz
leun eta izugarri
baina soilik hil behar dudanean
gero atzera altxatzeko.

Ez nator gudari sekretu baten tankeran
ezpata zorrotik at hortzen artean
mihiaren atzean ezkutatuta

eztarria mozten xingolaka
zerbitzari, irribarrez
odola jariatzen den bitartean
beheran eta kanporantz
nire bularreko bi aho sakratuetako
zuloetatik.

Emakume nator
hori bainaiz
gauetan hedatzen
algarak eta promesak
eta berotasun iluna
ukitzen dudun bizidun oro
epelduz,
elikatuz
soilik
dagoeneko hilda dagoenaz.

Letania bat, biziraupenaren alde

Itsasertzean bizi garenontzat
erabakiaren etengabeko ertzen artean tente
funtsezko eta bakarrik
ezin garenontzat
aukeren ametsetan murgildu
badatozen eta badoazen korridoreetan
maitatzen dugunontzat
egunsentien arteko orduetan
barrura eta kanpora begira
aldi berean, aurretik eta ondoren
etorkizun bilaka daitekeen orain baten
xerka
ogi-xerren gisan gure haurren ahoetan
haien ametsetan ez dadin isla
gure heriotza.

Beldurra suz markatu zigutenontzat
traza arin baten tankeran
bekokiaren Erdian
gure amaren esnearekiko izua ikasi genuen,

arma horren bidez,
segurtasun-arrasto bat topatzeko ilusioaren
bidez,
isildu egin nahi gintuen
oin astunen horrek.

Gu guztiontzat
une hau eta garaipen hau
ez gintuztelako bizirauteko sortu.
Eta eguzkiak argitzen duenean
beldur gara
eutsiko ote dion
eta eguzkia sartzen denean
beldur gara
argituko ote duen berriz
sabela beteta
beldur gara
kalte egingo ote digun
sabelak hutsik
beldur gara
sekula jango ote dugun berriz
maitatuak garenean
beldur gara
maitasuna desagertuko ote den

bakarrik gaudenean
beldur gara
sekula itzuliko ote den amodioa
eta mintzo garenean beldur gara
gure hitzak adituko ote diren
ondoetorriak izango ote diren;
baina isilik gaudenean ere,
beldur gara oraindik.
Beraz, hobe da hitz egitea
gogoan izanik
ez gintuztela bizirauteko sortu.

Moldatzen

Bost egunez egin du euria
goiti-beheiti
putzu biribil bat
da mundua
eguzkirik gabeko ura
non uharte txikitxoak
hasi berriak baitira
moldatzen.

Mutiko gazte bat
nire lorategian
ura ateratzen ari da
bere lore-sailetik
zergatik? galdetuta
esan dit
eguzkia ezagutzen ez duten hazi gazteak
ahaztu
eta aise itotzen direla.

Olgeta

Elkartzea
langintza errazagoa da
gure gorputzek
bat egin ostean
paper eta boligrafoari
bost axola eta mesederik ez
guk idazten dugunetz
baina zure gorputza mugitu ahala
nire eskuen azpian
kargatuta eta zain
uhala mozten dugu
sortzen nauzu, zure izterren aurka
irudiz menditsu
gure hitz-lurraldeetan barrena trostan
nire gorputzak
zure haragian idazten du
zuk bihurtzen nauzun
poema.

Zu ukituz, gauerdia harrapatzen dut
eztarrian ilargi-suak pizten zaizkidalarik

maite dut zure haragia loretan.
Egin zintudan
eta eginda hartu
nire barrura.

Emakumea

Zure bularren arteko toki batekin amesten dut
nire etxea bertan eraikitzeko, aterpe
haziak ereiteko
zure gorputzean
etenik gabeko uzta
non harririk arruntena
ilargi-harria eta ebano-opaloa baitira
nire gose guztien jaki
eta non zure gaua gainera abailtzen baitzait,
euri elikagarria nola.

Berrehungarren
urteurreneko poema
#21,000,000

Badakit
nire nazioaren mugak
nire barruan dautzala
baina film zaharrak ikusten ditudanean,
Paris azkenik askatu zutenekoak,
eta tanke frantsesak lurraldean ibilian,
berriz beraiena baita,
eta gizon frantses zaharrak negarrez,
kapelak bihotzean,
garaipenezko ereserki nazionala ezpainetan,

malkoz betetzen zaizkit begiak
ezin baitira ezein lurretara erori.

Sua zintzilikatzen

Hamalau urte ditut
eta azalak traizio egin dit
bizitzeko behar dudan mutikoak
mukiak jaten ditu oraindik
sekretuki
nolatan daude nire belaunak
beti hain zurbil
eta zer gertatuko da
eguna argitu aurretik hiltzen banaiz?
Eta amatxo logelan dago
atea itxirik.

Dantzan ikasi dut, garaiz,
hurrengo festara joan ahal izateko
nire logela txikiegia da
demagun graduazioa baino lehen hiltzen
naizela
melodia goibelak kantatuko dituzte
baina azkenean
niri buruzko egiak esango.
Ez dut ezer egin nahi

eta gehiegi dago
egiteko.

Eta amatxo logelan dago
atea itxirik.

Inork ez du sekula pentsatzen
zelakoa ote den nire bertsioa
Matematika Taldean egon behar nuke
mutil hark baino nota altuagoak nituen
zergatik eraman behar dut
nik

hortzetako aparatua
ez daukat biharko jantzirik
biziko al naiz nahikoa luzez
heldu bilakatzeko?

Eta amatxo logelan dago
atea itxirik.

Bidaia-harriak I-XI

I

Maxine,
garai batean miresten nuen
deus ez esateko zure talentua
hain bikaina
nola odola beti zen beste norbaitena
nola zu beti beste nonbait
zeure burua izateko gai
kanpotar.

II

Elaine,
nire ahizpa arrotza
diosala egiten diot oraindik
galera ikasteko
botereari.

III

China,
beti ihesean zebilen neska
sentitzen dut
gure gaua
ez zelako nahikoa beltza izan
zu bertan
ezkutatzeko.

IV

Jan,
hainbeste deitzen ziren
horrela
ezen ez bainaiz oroitzen
nor zinen
zu.

V

Margaret,
poltsikoan utzi zenidan
arroka hautsiak
etengabeko kurbak zituen
ezin leunduzkoak.
Deskubritu nuen
historiaurreko intxaur baten
oskol-erdi nintzela
harri bihurtua.

VI

Catherine,
lurrean etzanda zaude
tipulatxo garratz bat nola
eta gehiegi hurbiltzen
natzaizun aldiro
negar egiten dut.

VII

Isabel,
zure odola entzuten dut deiadarka
baina nekatuta nago
min egiten duten
eta aldi berean
zure babes hartzen duten
adiskideez
nire bihotza
nahastuta dago
maitatzea behar baituzu
baina baita suntsitzea ere.

VIII

Joyce,
gorroto izan duzu, betidanik
haserre egon
eta ezin inor
akabatzea.

IX

Janie,
oihua aditu nuen
zure begi zorrotzetan itotzen
itsaslaminak haragiztatzeko prestatuak
azalera erakargarria,
korala bezain zital.

X

Flora,
nire ahizpa
jakin badakidana
ez dut zertan
ulertu.

Harri bihurtzen banauzu
ubelduko zaitut.

Zoriaren azken zuloa
enperatrizaren amorrua da
bai baitaki hilkorra dela
eta umerik gabea.

Baina irakats al diezaiokezu nire alabari

Zer esan nahi duzu
ez ez ez ez
ez daukazu eskubiderik
jakiteko
zenbat aldiz
hartu dugun batak bestea
aterpe
hotzaren aurka
eta nire alabak ere badaki
dakizunak
min zaitzakeela
eta ezetz esaten du
eta min egiten dio
eta esaten du
askapenaz ari denean
askatasuna esan nahi duela
min horretatik askatzea
alabak badaki
dakizunak
min zaitzakeela

baina ez
dakizunak
hil zaitzakeela.

Ahizpa arrotza

Garai pobrean jaio ginen
bata bestearen gosea
sekula ukitu gabe
gure apurrak
sekula konpartitu gabe
beldurrez
ogia etsai bilakatuko ote zitzaigun.

Orain, gure haurrak hezten ditugu
beren buruak ez ezik
elkar ere errespeta dezaten.

Orain bakardadea
sakratu eta erabilgarri zaizu
eta ez duzu gehiago behar
orain
zure argiak bizi egiten du dir-dir
baina nahi dut
jakin dezazun
zure iluntasuna ere
aberatsa dela
eta beldurraz gaindikoa.

Boterea

Poesiaren eta erretorikaren arteko aldea da
ea prest zauden
zure burua
akabatzeko
zure haurren orde.

Harrapatuta nago, pistola-zauri gordinen
desertu batean
eta hildako haur batek, bere aurpegi beltza,
txiki-txiki egina,
garraiatzen du nire loaren ertzean
odola bere masail eta sorbalda zulatuetatik
hori da likido bakarra, milaka miliatan, eta nire
urdaila
astintzen da balizko zaporea irudikatzean,
bitartean
ezpain lehorretan bereizten zait ahoa
leialtasun edo arrazoirik gabe
bere odol umelaren egarri
galduta nagoen desertuaren zurian
hondoratzen joan ahala

irudi eta magiarik gabe
boterea eratzten saiatzen, gorrotoa eta
suntsiketa oinarri
hil hurran dagoen nire haurra sendatzen
saiatzen, musuekin,
eguzkiak baizik ez ditu azkarrago lehortuko
bere hezurak.

Queens auzoan 10 urteko ume bat tirokatu
zuen polizia
zutik geratu zen mutikoaren ondoan, polizia-
zapatak odol umetiarrez blai
eta ahots batek esan zuen “hil, putaseme txiki
alaena” eta
zintetan egiazta daiteke hori. Epaiketan,
poliziak, bere burua defenditzeko, zera esan
zuen:
“ez nion erreparatu tamainari ez beste deusi,
soilik koloreari” eta
zintetan egiazta daiteke hori ere.

Gaur, 37 urteko gizon zuria, 13 urtez bortxa
polizialaren gauzatzaile,
aske utzi dute

11 gizon zurik, zeintzuk pozik agertu baitira
justizia egin delako,
eta emakume beltz batek, zeinak esan baitu
“konbentzitu ninduten”, esan nahi baita,
emakumearen metro eta 60 zentimetroko
gorputza arrastatu zutela
gizonen onarpenak gobernatutako lau mendeen
sugarren gainera
andreak uko egin arte bizitzan estreina
izandako botere-puska errealari
andreak bere umetokia porlanez berdindu arte,
gure haurrentzako hilerri bat eraikitzeko.

Ez naiz gauza izan nire barruan dagoen
suntsipena haztatzeko.

Baina ez baldin badut ikasten
poesia eta erretorikaren arteko aldea
erabiltzen

nire boterea ere ustelduko da, lizun
pozoitsuaren eran,
edo indarge eta ezdeus bihurtuko da,
konektatu gabeko kablea bezala
eta egunen batean nire kable nerabea hartuko
dut

gertuen dagoen lokira estekatu,
eta 85 urteko andre zuri bat bortxatuko dut
zeina, norbaiten ama izango baita,
eta konortea galarazi arte kolpatu eta bere
ohea sutan ipini bitartean
koru greziar batek nire atzean abestuko du,
3/4 erritmoan:

“Emakume gaixoa. Ez zion sekula inori kalterik
egin. Zer-nolako basapiztiak
diren!”

Eresia

Nire ahizparen etxeko neska batek
amesgaiztoa darama
txorienak bezain geldi dauden
begien atzean.
Odolak dei egitean
letoizko eraztun batean ezkututzen da
ez malkoek ez elikadurak
alda ezin dezaketena.

Baina zirkulu batek ez du sufritzen
eta ametsik ere ezin du egin.
Neskaren hatzak elkartzen dira, sustrai
ezkondu batean
gauak, jada, ezin du hautsi
ezta eguzkiak ere sendatu
laster, bero zuri gupidagabeak,
amesgaizto-begiak
erreko dizkio
agata bihurtu
mihi isila
silex bilakatu.

Orduan, kolpea du joko
baina ez da inoiz gehiago
odoletan hasiko.

Ez sekula onartu emakume baten sua

Ahizpa eta bioi
gorrotatzen erakutsi ziguten
emeki
bi-bion isilaldiek
mihia kiskaltzen digute
sugararak bailiran
batak bestea agurtzen dugu
errespetuz
alegia
distantzia arretatsu batetik
bien bitartean etzatea dugu amets
pasioaren samurrean
maitasunaren usaina darion
emakume batengandik edateko.

Gure artean

Garai batean, gela batera sartzen nintzenero
aurpegi beltz bat edo pareta xerkatzen nituen
kontaktua egiteko edo ziurtatzeko edo seinale
baten zain,
ez nengoen bakarrik
orain, aurpegi beltzez betetako geletara sartu
eta edozein huskeria dela-eta suntsituko
ninduketenez
nora joko dute nire begiek?
Garai batean aise topatzen nuen
nire jendea.

Gure indarraren
pretentsio oro erauziko baligute
eta haragia moztuko
eguzkiak lixibatuko lizkiguke hezurak
zuri egiteraino
nire amaren aurpegia nola
urreak zuritua hura
edo Orixala nola
eta zelatan

ez ote da hori ere nire neurri?

Ez dut uste
gure desirek
sakratu bihurtu dituztenik
gure gezurrak.

Eliminako itsasertzean, eguzkipean
gizon beltz batek emakume bat saldu zuen
haren emasabelean nire amona.

Txanpon horiak ordaindu zizkioten,
dir-dir egiten zuten iluntzeko eguzkitan,
eta haren seme-alaben aurpegietan.

Neba hori irudikatzen dudanean
haren irisek ez dute ez odolik ez kolorerik,
mihiaz miazkatzen ditu txanpon horiak,
itsasertz honetara jaurtiak;

txoko bat konpartitzen dugu bertan,
zeru arrotz eta ustelean,

eta saiatzen naizen aldiro,
belztasun erraxezko salbazioaren
hitzak jaten,

dastatu egiten dut
amonari egindako lehen traizioaren

kolorea.

Ez dut uste
gure desirek
sakratu bihurtu dituztenik
gure gezurrak.

Baina ez dut bere izena txistukatu Xolanako
tenpluan
ez ditut heriotzaren zuku arrosadunak bere
gainera ekarri
ez dut ahantzi
zuritasunaren jainko esaten diotela Orixalari
gauaren umetoki ilunetan jarduten baitu
guk guztiok ezagutzen ditugun formak sortzen
hortaz, gurtzaile sakratuak dira
baita elbarriak eta nanoak eta albinoak ere
arto egosia eskaintzean.

Umiltasuna datza
historiaren aurpegian
nire buruari barkatu diot
bera
eta haragi zuria

guztiok isilean jan baikenuen
jaio aurretik
otordu bera egin baikenuen denok.
Paldoztatzen nauzunean
zure belztasun estuaren lantzekin
nire bihotza hizketan aditu aurretik
deitoratu zure odol maileguan emana
zure ikuspegi maileguan emanak.

Ez nahastu nire haragia eta etsaia
ez idatzi nire izena hautsetan
bartzanga-jainkoaren tenpluan
Exuren haurrak gara-eta
zoriaren eta ezin aurreikusizkoaren jainko
eta denok daramatzagu aldaketa asko
azalaren barruan.

Orbainez armaturik
sendaturik
hainbat kolorez
nire aurpegiei egiten diet so
Exuren alaba negarrez
ez badiogu uzten
gure barruko bestea akabatzeari

besteengan etzan eta
gorroto dugun geure burua hiltzeari
laster ipiniko gara denok
norabide berean
eta Exidaleren apaizak jo eta su jardungo dira
beraiek baino ezin baitituzte ehortzi
heriotza bilatzen dutenak
jauzi egin
eta norbere buruaren gainean eroriz.

Poeta horri zeina
bide batez beltza baita,
eta poeta beltz horri
zeina bide batez
emakumea baita

I

Belztasunaren erraietan jaio nintzen
nire amaren izter zehatzen artetik
urak egin zituen lore urdindun linoliozko
zoruairen gainean
eta elur bilakatu ziren Harlemgo hotzaren pean
gaueko hamarrak, ilargi betea
nire burua, ingurura begiratzen zuen erloju bat
“hain zinen iluna” esan zuen amak
“mutiko bat zinela pentsatu nuen”.

II

Nire ahizpa estreinakoz ukitu nuenean
bizirik
ziur nengoen lurrak aintzat hartu zuela
baina ez ginen berriak
azal faltsua mudatu zen, suzko eskularruen
gisara
sugar-uztarriak azala jausi zen
dena, hatz-mamietaraino
bere abestia idatzi zidan esku-ahurretan sudur-
zuloetan zilborrean
ongi etorri etxera
hizkuntza batean zeina pozarren berrikasi
bainuen.

III

Izpiritu hotzik ez zen sekula pasa nire
hezurretan barrena
Amsterdam etorbideko izkinan
Zakurrek ez ninduten sekula bankutzat hartu,
zuhaitz edo hezurtzat

maitaleek ez zituzten sekula nire beso marroi
joriak hartu
hegotzat ez ninduten, ezta ere, okerrean
kondor izendatu
baina gogoan ditud, zenbatu beharrik gabe
begiak
ni bertan behera uzten
hitzordu gogaikarri bat banintz nola
bidali beharreko gutun bat
zigilu horia gorria morea
edozein koloretakoa
salbu eta beltza eta aukerazkoa
eta emakumea
bizirik.

IV

Ez dut oroitzen nire lehen poemako hitzik
baina ondo gogoan dut
boligrafoari egindako promesa
ez nuela sekula lagako
hantxe igerian
beste norbaiten odolatan.

Geltokiak

Zenbait emakumek maite dute

zain egotea

bizitzaren zain eraztun baten zain

ekaineko argiaren pean ukitu baten zain

eguzkiak senda ditzan beste emakume baten

ahotsaren zain oso bilaka ditzan

eskuak aska diezazkien

hitzak ipini beren ahoetan

forma eman beren ibilbideei soinua

beren garrasiei lotiren baten zain

gogora dezan beren etorkizuna beren

iragana.

Zenbait emakume zain egoten dira, tren egokia

noiz

iritsiko okerreko geltokian

goizaren kaleketan

eguerdiak oihukatzeke zain

gaua abailtzeke zain.

Zenbait emakume zain egoten dira, maitasuna

noiz altxatuko
beren itxaropenaren haurra
erein ez dutena
lurretik noiz bilduko
lanaren oinazea noiz aldarrikatuko
geziaren punta
noiz bilakatuko orainaren bihotzari
noiz tirokatuko
baina ez du sekula irauten.

Zenbait emakume zain egoten dira, itzultzen ez
diren
irudien zain
non ez baitira ongiatorriak
biluzik
gonbidapenak noiz errepikatuko zain
beti bisitatu nahi izan dituzten
tokietara.

Zenbait emakume beren buruen zain egoten
dira
hurrengo kale-kantoiari
eta toki huts horri bakea esaten diote
baina bizitzearen aurkakoa

ez bizitzea da, ez besterik
eta izarrei axolarik ez.

Zenbait emakume zain egoten dira, zerbait
noiz aldatuko eta deus ez da
aldatzen
beraz,
beren burua aldatzen dute.

Mawu

Arrotzez betetako gela zuri honetan
zu zara oroitzen dudan lehen maitasun-
aurpegia

baina eremu zakarretan nire buruarena naiz
zure begirada amorratuenean argitan
zure odola nire ametsetan barrena igerian
ur gorri sumindua bezala
eta hiltzen dudan oro
heriotzaren atzamarretan
bilakatzen da zure azken isiltasun
ederrena.

Aske

ametsen prisma utzita
sekula bilakatuko ez garen
emakumeekin adiskidetzen gara
zure traizioak neurtu nituen
ehun aurpegi ezberdinen argitan
zu neure aldarrikatzeko
hoztua eta delikatua eta larria
berrikuspenetik at.

Zure heriotza aldegite bat den heinean
ez da sekula nire azkena izango.

Bisita amaieraren kanpaia aditzen da
korridorean
altxatu eta eskua hartzen dizut
eta oroitu ukoetatik harago
bizirik jarraitu dudala
opariak harritzen naute oraindik
alde egiten ari den amaren ahotsean
zaharra eta kexatia
aspaldiko gogortasunaren arrastoek dir-dir
dagite izarrek nola
hiltzen erakusten didate eta temati esaten
heriotza ez dela gaitz bat.

Ihardestearen artea

Lehen erantzuna okerra zen,
bigarrena barkamen-eskaera;
hirugarrenak azazkalak moztu zituen
Vatikanoko harmailetan,
laugarrena erotu zen,
bosgarrenak
gorrotoa elikatu zuen haur bikiez erditu arte,
seigarrenak liburu bat idatzi zuen,
zazpigarrenak
salaketa ipini zuen Auzitegi Gorenean,
scout nesken gailetak zergapetzearen aurka,
zortzigarrenak prentsaurrekoa eskaini zuen;
bien bitartean lau haurtxo beltzek
piketea egiten zutelarik New York hirian,
hil ahal izateko ospitale-ohe eske;
bederatzigarrenak eta hamargarrenak
Oposizioari Mendeku egitea zin egin zuten,
hamaikagarrenak hilobiak eraiki zizkien
Betiereko Egiaren ondoan,
hamabigarrenak
funtsak bideratu zituen hirugarren munduko

herrialde batetik

Central Harlem sendagilez hornitzeko,
hamahirugarrenak
uko egin zuen,
hamalauugarrenak kokaina eta hirustak saldu
zitu

Sagar Handiko zirkuan, komun baten inguruan;
hamabosgarrenak
galdera aldatu zuen.

Klima-kontua

Zintzo izaten ikasi nuen
igeri egiten nola
itzuriezinekoan erorita
nire aitaren hatz lodiak besapeetan
joaten uztear
Azaleratzen
ahalegintzen naiz tentuz
oroituz
uraren musketa itzaltsua
gatz-kanoiak eztanda
nire sudurzuloen haserrea
eta hainbat urtez
nire bular-kolpe indartsua
guda-adierazpen bat.

Judithentzat

Denbora-pasan egoteak
esan nahi du
elkarrekin egotea
lurraren gainean
arroilak
indimitre zuhaitzak
azeri eta oreina
askan
ez guztiz elkarrekin
baina bai bata bestearen manerak
ikasten.

Politika-harremanak

Taxkenteko hotel batean
Rigako ordezkari lituaniarra
arrain-hezurrei zupaka ari zen,
nireen gisako esku beroak zituen emakume
Txukwu batek
belauna laztantzen zidan bitartean, afaltzeko
mahaiaren azpian
bere begiak, trabeska, itsas zakur larrua
bezain ilunak ziren
ez genuen bestearen hizkuntza ezagutzen.

“Egunen batean gure haurren bidez
mintzatuko gara”
esan zuen
“zure begiei mintzatu natzaie gaur
hain da ederra zure aurpegia”
gona findun neska moskutarrak ari ziren
itzultzaile
irribarretxo artean.

Berari begira egona nintzen hitzaldi-aretoan
idi bat bezain sendoa ile beltz elektrikoa

leuna, oreinen brida bezain suzko begiak
aurpegien ganean hedatzen
izotz-tundrazko zerrenda baten gisan
soka tenkatu baten bi muturrak ginen
luzatuta, promesa bat nola, bere ahoa
 abiapuntu

bere jendeek agurtzeko abesten zuten
adiskidetasun-doinuak kantatzen

 Hamalau mila lagun baino ez gara
 orain

 gauza benetan tristea da gauza
 benetan tristea da

 edozein jende edozein jende
 hiltzen denean.

“Bai, gaur goizean aditu zaitut”
esan nuen ukitzen ginen tokitik altxatu eta
vodka basokada bat emanez arrosak bailiran
onartu zuen eskaintza
gure interprete errusiarren gainetik makurtu
eta musu leun bat emanez ezpainetan.

Gero, mahaitik altxatu eta alde egin zuen
Rigako ordezkari lituaniarrarekin.

Hildako emakumeentzat, poema zintzorik ez

Zer nahi dugu bata bestearengandik
geure istorioak kontatu ostean
zer nahi dugu
sendatzea zer nahi dugu
goroldio isilak gure orbainak estaltzea
zer nahi dugu
ahizpa boteretsu ez-beldurgarri bat
zeinak oinazea eramango baitu
edo amaren ahotsa pasabidean
ondo egin duzu
estreinako aldian laztana
ez duzu zertan
sekula gehiago egin.

Trumoiak zeruertzean
denbora erosten du beste istorio batekin
aire-baba zurbil bat
hildako haragiaren kadentzia
bokalak iluntzen.

Etiopia

Tifarentzat

Esnerik gabeko zazpi urteren ostean
denek pozarren egiten dute dantza
zure urtebetetzean
baina txalo egitean eskumuturrak
hausten zaizkizu
eta zure amonaren gurin indiarra ere
ez da gauza
hezur-brodatu minberak
sendatzeko.

Ez sekula amestu armiarmekin

Denbora behera dator arrotzen ezpainen
artean

nire egunak behera datoz tubo huts batean
“laster”ek inplosionatzen du “orain”en aurka
burdinazko horma bailitzan
begiak estalirik ditut hondakinez
ikuspegien orban batek
lausotzen du zeruertz oro
isiltasunaren zehaztasun hatsik gabean
hitz bat sortzen da.

Behin haragi ukatuak alde eginda
udazken-airea datza nire bisaiaren aurka
zorrotz eta urdin, orratz baten gisara
baina euria egin zuen urrian zehar
eta heriotzak kondena bat ezarri
nire odolean.

Zure lepoaren usaina abuztuan
urrezko hari fin bat gerra bitxiz janzten

gainerakoa datza
engainagarri, baserri bat bezala
haranaren beste aldean
arratsaldearekin bat desagertzen.

Hirugarren eguna laugarrena
 hamargarrena
zazpigarren pausoa
ate beilatu bat nire urrezko urtemugarantz
suaren aurka babestutako paper askeak
 txikituta
zakur arpilatzaile baten hortzetan
ez sekula amestu armiarmekin
eta tutu malguekin ureztatu nindutenean
argi-eztanda bat.

Urtzaro

Pasa diren urtaroen mintzoak
kalabazak erorarazten ditu udaberrian
hazi faltsuak irristatzen dira lokatzen gisan
aisetasunaren aurpegian
eta eskua hurbiltzen diodan oro
zurbiltzen da eguzkiaren argitan.

Hor egongo gara beti, deitzen duzunero
esan zuten sorgin zaharrek
beti esanda, beti esanez
beste zerbait aldi berean
harrapatuta zaude, lo
hitzik gabe
akaso, bazaude, baita ere
hautsita.

Tentuz ibili, gure inguruan
pitzatzen ari dira-eta hitzak oro
bagoaz
banatuta eta silabatan
baldin eta bizirik segitzen badugu.

Sirakusako aireportua

Bakero garbiak eta zapata erosoak
hemen ez dut sekreturik behar etxean
oihartzunik gabeko argi honen pean
paper mordoxka bat hedatu dut
inguruan.

Bestaldean erne
begi grisezko emakume bat sutu da
sudurzulo zurbilak dar-dar
ondo dakigu biok
tokia hartzen duten emakumeei
zabar esaten zaiela.

Ekoizpena

100,000 erlek erlauntz gotorra jorratzen dute
eta prest uzten ilargi betea eta hiru
egunetara

guk
eztia mozten dugu.

Aizto beroek argizari-estalkiak ebakitzen
dituzte
marko astun bakoitzean
aberastasun ilun eta polendua jariatzen da
karga-karga egindako orrazietatik.

Sadiq-ek argizarigailua betetzen du
Curtisek ardatza egokitzen.
Erleen antzeko aztarna gozoak dabilta
aire berozko arrakala bakoitzean.

Ezti-etxearen kanpoaldean
erlamando gosetia biltzen dira
ahotsa apal eta tinko
jarioa iragazten dugu barrez

eztiz hordi.

Iluntzearen aurrean
botila-ilara luzeak
etiketatuta eta zain.

Bihar gure ogibide izango dira
2 dolarrean bakoitza.

Sukaldeko linolia

Hiltzen ari den
labezomorroak
eta itsu dagoen
emakumeak
adostu dute
ez direla ohartuko
bata bestearen lotsaz.

Electric Slide Boogie

Urte berri eguna, gaueko 1:16
eta nire gorputza nekatuta dago, denboraz
harago

nekatuegi etzan eta atsedean hartzeko
gela zabalak denen buruak ikusten uzten zidan
baina komunitatea deika ari da
juxtu atearen bestaldean
bateriak ekin eta ekin paretetan barrena
haurrak beren antzerkitxoetan jostetan
kakotegi tolesgarri baten azpian
nire gelaz kanpoko korridore estuan.

Ondoko gelan, telebista topera dago
gauerdia da Idahon
taupada, ordea, arina da sotila jira-biran
Electric Slide Boogieren erritmoan
pausoka-pausoka
egongela pasata
jangelako kopen
dilin gozoa pasata
eta apur bat gehiegi egindako

sagar pastel holandarra pasata
denak nahas-masean
Gloriaren
algara ilun aberatsarekin
eta oktaba altuagoko bere ahizpekin.

Zer zaila den izan bizitzaren erdian lo egitea.

[1992ko urtarrilak 3]